



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Departamento de Cultura,  
Turismo, Juventud y Deportes



ORAIN  
KULTURA



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa  
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena  
fomentosansebastián  
DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN  
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA  
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

## 2019 urtean San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-en elkarlanarekin egindako filmatzeek 10 milioi euroko inpaktu ekonomikoa eragin dute Gipuzkoako lurraldean



(Mari Jose Telleria, Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura zuzendaria, eta Enrique Ramos, Ekonomia Bultzatzeko zinegotzia)

Woody Allen zuzendari estatubatuarraren filmak eta “Patria” (HBO) eta “La línea invisible” (Movistar) telesailek, San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-en elkarlanarekin eginak, 2019 urtea urte historiko bilakatu dute, Donostian eta Gipuzkoan egindako filmatzeei dagokienez. Izan ere, proiektuen garrantzia eta kalitatea handia izan da eta aurrekontu gisa izan dituzten 35 milioi euroek ondorio ekonomiko handiak eragin dituzte. Datu ekonomikoez gain, Woody Allenen tamainako nazioarteko zuzendari baten film batek hiriaren eta lurraldearen irudian izan dezakeen eragina ere nabarmendu behar da. SSGIFilm Commission Gipuzkoako lurraldeko filmatze guztiei zerbitzua eskaintzen dien baterako bulegoa da (garapen-agentziekin elkarlanean), Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoaren-Donostia Sustapenaren eta Gipuzkoako Aldundiko Kultura Sailaren menpe dagoena. Batzorde honen 2019 urteko balantzeak beste film garrantzitsu batzuk ere barne hartzen ditu: “Ventajas de viajar en tren”, Goya sarietarako lau kategoriatan proposatua izan zena; edo nazioarteko irismena duten iragarkiak, Zara markarena adibidez, Igeldo Mendiko Jolas-parkean grabatu zena.

**Kulturako foru zuzendari Mari Jose Telleriak nabarmendu** du “kultura badela aberastasun eta enplegu iturri garrantzitsua ere, halaxe ondorioztatzen baita ikusita balantze hau, ekoizpenen eragin ekonomikoa eta hiriko eta lurraldeko beste herri batzuetako hainbat sektoretan horiek izan duten eragina. Orobat, adierazi du azpimarratu behar dela jarduera honek eragin handia duela kanpoan dugun irudian, eta, baita ere, gure ikusentzunezko sektorea sendotzen laguntzen duela, urtez urte presentzia eta garrantzia hedatzen ari baita”.



Hiri berritzailea  
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

**Ekonomia Bultzatzeko Zinegotziak, Enrique Ramosek**, adierazi zuen: Datu hauek urte askoan zehar bertako zinematografia eta ikus-entzunezko sektorea sendotzeko egin den ahaleginaren emaitza dira, proiektu konplexuenei aurre egiteko profesionalizatuta eta prestatuta dagoen sektore bat finkatzeko. Ekoizpen handi hauekin lurraldeak ikus-entzunezko filmatzeetarako duen erakarpenez ahalmena ere argi geratzen da.

San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-en bigarren urtean, Gipuzkoako ikus-entzunezko filmatzeak ahalbidetzen dituen bulegoak ikus-entzunezko 84 proiektu artatu zituen eta guztira 424 grabaketa-egun egon ziren, bai hiriburuan, bai Gipuzkoako hainbat udalerritan. Honakoak dira garrantzitsuenak:

- **Woody Allenen** filma. Behin behineko izenburua “**Rifkin’s Festival**” da; Elena Anaya, Sergi López, Wally Shawn eta Gina Gershon dira protagonistak, *Mediapro*-k ekoiztua da eta Gipuzkoako leku ezberdinetan grabatu zen, sei astean zehar. Donostia izan zen agertoki nagusia, izan ere, Boulevardean, Kontxako hondartzan, Miramar Jauregian, Bilbo plazan edo Kurasaalean grabatu ziren hainbat eszena. Halaber, lan-taldea Gipuzkoako beste udalerririk batzuetan ere aritu zen, esaterako, Pasaian, Hondarribian edo Zumaiain, non filmaren beste eszena batzuk grabatu ziren. Gainera, filmaren trama Donostiako Nazioarteko Zinemaldian oinarritzen da. Woody Allen XX. mendeko zuzendari onenetakoa da; filmatze honek orain arte Donostian edota Gipuzkoan grabatutako filmetan jauzi kualitatibo bat eragiten du eta gure lurraldea goi-mailako pelikulak grabatzeko espazio apropos gisa finkatzen du. Oraindik ez daukagu estreinaldi-egunaren berririk.



(Argazkia: Diario Vasco)

- **‘Patria’**. HBOk Europan gaztelaniaz grabatu duen lehen telesaila da. Kate iparramerikar honek mundu mailan ezagunak diren telesailak ekoiztu ditu, hala nola, “Game of Thrones”. Kalitatearen aldeko apustua egiten du eta oso proiektu gutxi finantzatzen ditu, baina horien artean dago “Patria”, Gipuzkoan eta Madrilan grabatua. Telesaila Fernando Arambururen izenburu bereko liburuan oinarrituta dago eta Aitor Gabilondo Donostiarrak ekoiztua da. Filmatzeak ia 15 aste iraun zuen eta Donostian, Soroluzen eta Elgoibarren aritu ziren. San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-ekiko elkarlana honetan oinarritu zen: ekoizlearen eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat udal eta erakunderen arteko bitartekotza-lanak egitea, izapideak egitea eta udalaren baimenak lortzen laguntzea.

Telesail honen filmatzea Donostian filmatze baten ondorioz izan den erakustaldi handienetakoa bat izan zen: Boulevarda 80 eta 90eko hamarkadetan zuen itxura izateko apaindu zuten, hau da, oinezkoentzako biderik gabe, garai hartako autoz beteta eta autobus bat erretzen zutela



Hiri berritzailea  
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

plantak eginez. Telesaila maiatzean estreinatuko dutela aurreikusten da eta astean kapitulu bat emango dute.



(Argazkia: David Herranz)

- **'La línea invisible'**. Film hau Mariano Barrosok zuzendu eta *Movistar*-ek ekoitzi du, bertako lan-talde tekniko paregabe bat izan du eta Goya baten irabazlea den Ander Sistiaga ekoizpen-zuzendaria buru izan du. Gipuzkoako hainbat udalerritan grabatu zen eta filmatzea abuztuan amaitu zen. Kasu honetan, San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-ek kokapenak bilatzen, izapideak egiten eta baimenak lortzen lagundu zuen. Telesaila *Sentido Films* eta *Corte y Confección de Películas*-ekin elkarlanen ekoitzi da eta Mariano Barroso, Michel Gaztambide eta Alejandro Hernándezek idatzi dute; 6 kapitulu ditu, bakoitza 45 minutukoa.



(Argazkia: Lisbeth Salas, Movistar)

- **'Ventajas de viajar en tren'**. *Morena Films* eta *Señor y señora* produktore madrildarrak eta donostiarrak –hurrenez hurren– ekoitzi dute eta Aritz Morenok zuzendu; protagonistak, besteak beste, Luis Tosar, Ernesto Alterio, Belén Cuesta, Ingrid García Jonnson, Quim Gutiérrez eta Macarena García dira. SSGIFilm Commission-ek kokapenak bilatzen lagundu zuen, erakundeen arteko bitartekotza-lanak egin zituen eta baimenen izapideak egiten lagundu zuen.



Hiri herritzailea  
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus



- **'Akelarre'**. Gipuzkoako *Lamiak Films* eta *Kowalski Films* eta Frantziako *La Fidèle* ekoizleen arteko koprodukzio bat da, Pablo Agüero argentinarrak zuzendua. Zarauzko portua izan zen filmatzearen azken kokapena.



- **'Hil kanpaiak'**. Udazkenean Gipuzkoan euskaraz grabatu zen film luzea da, *Abra prod*-ek ekoitzi zuen eta hiru Goya irabazi dituen lan-taldea izan du, hirurak gipuzkoarrak: Jabier Aguirre (argazkilaritza-zuzendaria), Saioa Lara (jantziak) eta Eneko Sagardoy aktorea.
- **'Allí abajo'**. *Antena 3* kateko telesail arrakastatsuen bosgarren eta azken denboraldiaren zati bat Donostian filmatu da, gainontzeko denboraldien era berean.
- **'Goazen'**. ETBko telesailak ere Donostian grabatu zuen SSGIFilm Commission-en laguntzaz.

Telebistari dagokionez, telesailez gain, Donostian gastronomiari eta turismoari buruzko programak eta lehiaketak ere grabatu dira. Hirian gai honekin lotutako proiektu asko filmatzen dira eta bertako, nazio mailako eta atzerriko telebista-kateetarako ekoitziak izaten dira. Era honetan, uztailean arteko programak ditugu: **Canal Cocina-rentzat (euskal-sukaldaritzari buruzko programa)**, **TVE (Donde Comen Dos)** eta **ETB (Restaurante Sin Barreras eta Karabana)**. Baita atzerriko telebistetarako ere: **Hego Korea (Maneras de Comer)**, **Grezia (Masterchef Grezia)** eta **Alemania (Bustour)**.



Hiri berritzailea  
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

TVErentzat beste programa batzuk ere grabatu dira, **Flash Moda-arentzat, San Sebastián Histórico edo Jo Soc Erasmus**. ETBko Ahotsak programak Gipuzkoako hiriburua agertoki gisa aukera du hiru aldiz; eta **France 3** kateak ere Txirrita eta Balenciagari buruzko programa bat filmatu zuen hemen.

2019 urtean Donostia hainbat **iragarkietarako** platoa izan da, besteak beste: bankuentzako (Laboral Kutxa); elikadura-kateentzako (Eroski) eta baita hainbat erakundeentzako ere, hala nola, Eusko Jaurlaritza. Hala ere, marka bera eta iragarkiaren eduki bisuala direla eta, udaberrian **Zara Kids-**entzat grabatutakoa nabarmentzen da, zeinetan Donostiako Igeldo Mendiko kokapen ezberdinak ikusten diren.

**San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-en** erronka nagusia Donostia eta Gipuzkoako lurralde osoa sustatzea da, nazio zein nazioarteko ikus-entzunezko industriaren arloari dagokionez; era horretan, Donostia filmatzeak egiteko kokapen ezin hobe gisa ezagutaraziko dute eta bertako ikus-entzunezkoen sektorea zabaltzeko eta garatu egingo da. Erakundeak sare bat sortu du lurraldean, zeina tokiko garapenerako hainbat erakundek osatzen duten. Aipatu erakundeek Gipuzkoa euren filmatzeetarako eszenatoki gisa aukeratu duten ekoizleen (zine, telebista eta publizitatea) lana errazteko doako zerbitzua eskaintzen dute.



Hiri berritzailea  
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus